

BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA**ELKANO 7**

Egile eta data ezezagunak (segur aski 1867)

Deskribapena.

Mehelin arteko eraikina, behe oina eta bost goi oin dituena. Azkena zertxobait atzeraemandako jasodura bat da, 1924koa. Behe oinean harlanduzko fatxada (oso kaltetua) eta goi oinetan entokatua (harlandua imitatzen da, margotua). Zurezko begiratoki bikoitza du 1. oineko erdialdeko bi baoetan, 1925ekoa da. Behe oineko lokaletako baoak batu egin ziren 1902. urtean, eta baoak bereizten zituzten harrizko horma atalak metalezko mainelekin ordezkatuta daude. Artxiboaren espedientetik ondoriozta daiteke jatorrizko proiektua komuna zela Elkano 3rekin (gaur egun ordezkatuta) eta Elkano 5ekin.

Babes erregimena.

1.- Erregimen orokorra.

Plan Berezi honen D babes mailan integraztearekin loturikoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2.- Berariazko erregimena.

A. Babesetik kanpo utzitako kanpoko elementuak edo zatiak: jasodura (5. goi oina).

B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.

C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk:

- * Begiratokiaren tratamendua ordenantza orokor horietan ezarritako irizpideetara egokituko da.
- * Erregimen orokor hori arautzeko gainerako baldintzak betetzeari loturikoak.